

### 3. Joxemiel Barandiaranen AITZ erroari buruzko proposamena

---



Joxemiel Barandiaran Aierbe, Euskal Herrian izan dugun euskal antropologo eta etnografo ospetsuena, Ataunen 1889an jaio eta 1991n hil zen.

Apaiz ikasketak Gasteizko seminarioan egin, eta laster hango irakasle bihurtu zen, Alemaniako Leipzig-en ere ikasketak osatuz.

1916an Aralar mendian hasi zen bere etnografia eta antropologia ikerketekin, trikuharriak aztertuz. Gero lankidetzaz estua hasi zuen Telesforo Arantzadi eta Enrique Egurenekin, Euskal Herriko koba nagusiak sakonki aztertuz ondorengo 20 urteotan. Jendeak, maitekiro “hiru troglodidak” izenez deitzen zituen. Joxemielek gerra zibilean Iparraldera joan behar izan zuen eta 1953 bere jaioterrira itzuli zen.

Erakunde hauetako partaidea izan zen: Euskaltzaindia; Real Sociedad Española de Antropología, Etnografía y Prehistoria; Real Academia de la Lengua Española; Sociedad Ibérica de Ciencias Naturales; Société Française d’Ethnographie; Folklore Society, etab.

Ondorengo aldizkarietan ehunka artikulua idatzi zituen: *Gymnasiuros*, *Anuario de Eusko Folklore*, *Eusko Jakintza*, *Ikuska*, *Hojas de Eusko Folklore*...

Idatzitako liburuak, bere lan guztiak biltzen dituen 20 tomotan jaso baziren ere, aipagarrienak honako hauek dira:

- *Eusko Mitologia* (1924)
- *Nacimiento y expansión de los fenómenos sociales* (1925)
- *Euskalerriko leen gizona* (1934)
- *Antropología de la población vasca* (1947)
- *Cuestionario para un estudio etnográfico del Pueblo Vasco* (1949)
- *Mitología Vasca* (1960)
- *Aspectos sociológicos de la población del Pirineo Vasco* (1953-57)
- *Euskal Herriko Mitoak* (1989)

*“Gure jatorriak erakutsitako bideak etorkizuna bideratzen lagun diezaguke, gure joerak eta helburuak berak markatzen dituelako”*


*Joxemiel Barandiaran*

## 1. Euskal populuari buruzko teoria baieztatuta geratu da

---

Barandiaranek, urte gutxigatik, ez zuen bere teoria nagusia zuzena dela ikusteko aukerarik izan. 1991n hil zenean jadanik genetikak gero eta indar gehiago zuen baina 2005. urte arte ez zen bere teoriarekin lotuta dagoen lehenengo emaitza argirik atera, Stephen Oppenheimerrek, Oxfordeko irakasleak, bere lan *The Origins of the British* liburua argitaratu zuenean.

Liburu horretan Stephenek frogatuta utzi zuen britainiarren %75 genetikoki KEAL aterpetik (Kantabria, Euskal Herria eta Akitania Lurraldeak) zetozela, glaziazio aroa amaitu ahala, hegoaldetik iparralderantz zabaldu zirenean hemengo populazioak. Ehuneko hori irlandar herrian handiagoa da, %90a hain zuzen ere. Ondorio hori atera ahal izateko, 10.000 lagun baino gehiagoz osatutako DNAREN base publikoak aztertu zituen. Gertakizun hau ondo ulertzeko, bere liburuan dagoen mapa begiratzea ezinbestekoa da: garai horretan, itsas maila orain baino 100 metro beherago zegoen eta Irlanda eta Britainia Handia kontinenteari lotuta zeuden.




Stephen Oppenheimerrek bere datuak argitaratzen zituen aldi berean, Euskal Herriko Biomics Ikerkuntza Zentroan aritzen diren Marian Martinez de Pancorbo eta Sergio Cardoso ondorio berdinetara heldu ziren. Ez horiek bakarrik. 7 urte pasatu dira Oppenheimerrek egindako lan hori argitaratu zuenetik eta ondorengo lanek ildo beretik doaz.

Euskal Herrian, zoritxarrez, orain gutxi arte lan horiek dakartzaten ondorioez ez gara ondo jabetu baina, bada hainbat ondorio ateratzeko ordua eta horietako lehenengoa argi dago: Joxemiel Barandiaranek, euskal populua gutxienez hemen 8.500 urte egona zela taxutu zuen teoria bete betean egia dela frogatuta geratu da.

Joxemielen teoria honen kontra iritzi asko entzun direla ez dugu ahaztu behar. Horietako nagusienetako bat hizkuntzalaritza arloko aditu batzuek esan zutena zen, gaur egungo Euskal Herriko biztanleak Akitaniatik etorritakoak direla zioena.

Beraz, Joxemielek beste etnografoekin batera egindako lanaren baliagarritasuna, berriz ere, argi eta garbi geratu dela baieztatu beharra dago.

Joxemielek genetikaren datu hauek ezagutzeko aukerarik eduki ez izana penagarria izan da. Seguruena bere teoriari oraindik beste dimentsioa emateko gai izango zelako.



Egunen batean gai honek dituen ondorioak ondo aztertzeke, Barandiaranen ondarea jagoteko arduratzen direnek genetistekin batera lan egitea ondo etorriko litzateke.

## **2. Barandiaranen “aitz” erroari buruzko proposamena zaharkituztat Kintanarentzat**

Baina gaurko Biltzarrean Barandiaranek hizkuntzalaritzaz esandako proposamena gogoratu nahi dugu, besteak beste, proposamen horregatik zaharkituztat eta erabat gutxietsia izan delako.

Deian eta Euskaltzaindiaren webgunean argitaratutako artikulu batean akademiaren idazkaria den Xabier Kintanak hauxe zioen (2011-02-19):

### **Ustea ez da jakitea**

Arlo guztietan, zientziek aurrera egin ahala, lehenagoko sinesteak aldatu eta, berriagoen eraginez, baliogabe gelditzen dira. Halere, belaunaldi bakoitzak eskolan ikasirikoa luzaro gordetzeko joera izaten du, eta kosta egiten zaio antzinako azalpen zaharkituak gainetik astintzea. Inertzia edo, nahiago bada, nagikeria horregatik normala izaten da, adibidez, gure eguzki-sisteman inguruan eraztuna duen planeta bakarra Saturno dela pentsatzea. Izan ere, Galileok, jada XVII. mendearan hasieran ezaugarri bitxi hori aurkitu zion. Baina, gutxiagok dakite, seguruenez, 1977tik hona Urano, Jupiter eta Neptunori ere antzeko eraztunak aurkitu zaizkiela, datu horiek gaurko entziklopedia guztietan, Google-n barne, aspaldian ageri diren arren.

Era berean, gutariko askori eskolan lehen gizakiak Adam eta Eva izan zirela irakatsi arren, Jainkoak buztinaz eginak, gaur, gure artean behintzat, ia mundu guztiak onartzen du hori behialako azalpen didaktikoa besterik ez zela, gizakiaren sorrera azaltzeko, Darwinek eboluzioaren teoria aurkitu arte sinesten zena. Garai batean ume txikiei haurrak Parisetik zikoinak ekartzen zituela esaten zitzairen bezala, Eibarren salbu, horra, gauza jakina denez, umeak Arrate menditik heltzen dira eta.

Euskal gaiak ere aspaldion gure irakaskuntzako programetan daude, nahiz eta, ene ustez, ez behar bezain ongi eta sakonki. Edonola ere, autonomia aurreko belaunaldietako euskal herritar asko, eskolan jasoriko erdal kultura eskusiboagatik, oso harro daude, "gure asaba galiarrak", Errege-erregina katolikoak, Cisneros edo Richelieu kardinalak, Pizarro konkistatzailea edo Molière, Calderón edota Moratín aita-eme teatrogileak nortzuk ziren dakitelako, baina Margarita Nafarroakoa, Joana Albretekoa, Etxepare, Leizarraga, Oihenarte, Axular, Larramendi, Mogel, Xaho, Azkue edo Lizardiz galdetuz gero, beldur naiz askotxok ez ote luketen zer esan jakinen, beren buruak pertsona eskolatutzat eduki arren. Eta, bertoko kulturarik ezagatik, Euskal Herriaz dakitena, askotan hutsa edota okerra da, faltsua, eta maiz erabat desfasaturik dago.

Inguruko Estatuetakako irakaskuntzak hertsikeria osoaz gure artean ereiten eta lantzen ziharduen inperialismo kulturalari aurre egiteko, hasierako euskal abertzaletasunak, euskal kulturaren dibulgazioari ekin zion, eta bertoko balioen aldeko ideiak, pozgarriak bezain goresleak, bultzatu zituen. Horiek, nolabait, itotzen gintuen arrozkeriaren aurkako babesgarri izan ziren, euskaldunok geure herriko balio propioez harro senti gintezen.



*Xabier Kintana, Euskaltzaindiko idazkaria*

Erdaldunek euskararen aurka lau haizeetara barreiatzen zituzten aurreiritzien aurka (dialekto mesprezagarri eta baliogabea zela, historia eta gramatikarik gabea, goi mailako kontzeptuak adierazteko ez hitzik ez sormenik zuena, elkar aditu ezineko dialekto barregarrietan banatua, kaletar eta zientzia mailako lexikorik gabea, erdaldunak hona heldu arte euskaldunok ezjakin hutsak ginela...), latin-jatorrizkoa ez izateari bestelako merezimendua aurkitu nahi izan zitzaion: euskara ez zela lattetik zetorren dialekto erromanikoa; areago oraindik, indoeuroparrak gure kontinentera iritsi baino lehenagoko hizkuntza miresgarria zela.

Horrela, ustekabea, euskara Europako hizkuntzetarik urtetsuena bihurtu zitzaigun, eta dauzkan sustrai sakonak harri-aroraino heltzen ziren, *aitzur*, *aizkora*, *aizto*, *aiztur* bezalako hitzek erakusten omen zutenez, guztiak, antza, haitz erro zaharretik sortuak, antzinako gizakiek, gauza jakina denez, hasierako lanabesak harriekin egiten zituzten eta. Era horretako azalpenak behin eta berriro errepikatu dira gaur arte, eta euskaldunon belaunaldi askori geure mintzaira, historiaurre eta nortasunaz harro egoteko arrazoiak eskaini dizkigute.

Zoritxarrez, geroago, bai bertoko eta bai atzerriko beste hizkuntzalari batzuek ere, berba horiek seguruenik latinetik helduriko mailegu zaharrak zirela irakatsi ziguten. Gainera, munduko hizkuntza guztiak lehenagoko beste mintzaira-fase batzuetatik datozela kontuan hartzen badugu, begien bistan dago den-denek adin berekoak izan behar dutela, izaki bizidunen antzera, atzera joan ahala, aitona-amona zaharrenek ere aurretik gurasoak eta asaba zaharragoak izaten zituzten eta.

Horrexegatik, nik uste, oinarrizko kontzeptu batzuk behar den bezalako logikaz eta gaurko zientzien arabera azaldu beharko genituzke euskaldunok ere, garai bateko ipuin zaharrak, jada gaindituak, premiarik gabe beti errepikatzen ez ibiltzeko.

Artikulu honi buruz, prentsaren bidez, erantzun bat jaso zuenez, Xabier Kintanak, hurrengo artikuluan, besteak beste, hauxe gehitu zuen (2011-06-29):

### **Entzutea eta ulertzea ez da gauza bera**

“Zientziak aurrera doaz, eta beren bidean aurkituriko datuen informazioarekin inguruak argitzen eta azaltzen laguntzen dute. Horrela, belaunaldi bakoitzaren emaitzek gure aurrekoen urratsak sendotzen edo bestebideratzen dizkigute. Hizkuntza zapaldu bati Estatuaren ofizialtasunak erabilera eta izateko eskubidea bera ere ukatzen dizkionean, normala izaten da herriko haur prestuak amaren ohore maiseatuari lehengo distira itzultzen saiatzea, lan horretan ahal duten guztia eta esku-ezagueretan dituzten bideak oro erabiliz.

Horrela jokatu zuten gure aurrekoek ere: Oihenartek, Larramendik, Astarloak, Xahok, Campionek, Azkuek, Arana-Goirik... eta, zein bere mendearen kume, euskararen etorki biblikoa, tubalismoa, asmapen filosofikoa, indoeuroparren aurrekoa, iberiarra etab. proposatu zuten. **Aita Barandiaran** izan ei zen, dirudienez, Campionekin batera, hitz batzuen kanpo itxura modernoaz baliatuz, gaurko euskararen etorkia harri aroraino atzera zitekeela esan zuen lehenengoa. Hori, gainera, herriko hizkuntzaren defentsa sutsua egiteko asmo zuzenaz, eta garai hartako jakintzarekin, nolabait, aski ongi uler eta onar zitekeen. Garai hartarako, behintzat.

Ibaletako urak bezala, zientziak ere aurrera egiten du, eta gaurko aurkikuntzek, maiz, atzoko segurtasunak zalantzan jartzen dituzte. Aurrerapenak horixe dakar, inguruko unibertsoaz geure buruan daukagun irudia eta antolaketa etengabeki aldaraztea. Batzuetan horren lerro nagusiak dardararazten ditu, eta beste

batzuetan azaleko xehetasunei besterik ez die ukitzen. Lehenik, antzinako gizakiei Jainkoaz, munduaz eta bertako bizidunez ideia orokor egituratua eman nahirik, Liburu Santuek unibertsoaren sorreraren istorioa kontatzen zuten.

Geroago, izarrei behatuz, horren lekuan, Kopernik poloniarrek gure planeta-sistemaren heliozentrismoa eta Laplace frantsesak grabitazioaren legeak formulatu zituzten. XIX. mendean Darwinek bizidunen bana-banako kreazioaren ordeztu, eboluzioaren teoria azaldu zuen. Ondoren, joan den mendearen hasieran, Einsteinek denboraren erlatibitatea aurkitu zuen... Bakoitzaren emaitzek, handitan edo txikitan, ordura arteko jakintza irauli eta gauzak birplanteatzera bultzatu zuten.”



*Kintanarentzat Barandiaran “garai hartako jakintzaren” semea da, tubalismoa, asmapen filosofikoa... sortzaileen antzekoa.*

*Kintanaren hitz hauen atzean dagoen ezjakintasuna handia dela dirudi (Barandiaranen lana ez duela ezagutzen argi eta garbi dago).*

### 3. Joseba Lakarraren gai honi buruzko iritzia

---

Gai honi buruz, ezaguna da EHUko Euskal Filologia zuzentzen duen Joseba Lakarraren iritzia, Xabier Kintanaren ildo beretik doalako. Bere iritziz ezinezkoa da “aitz” erroa duten hitz hoiak paleolito garaikoak izatea *aizkora*, *aiztoa*... harriz egiten zirelako eta ez haitzez. Horrez gain, Lakarraren iritziz gaur egungo hizkuntzalaritza metodoekin paleolitoraino heltzen diren hitzak topatzea ezinezkoa da, ez euskaran ezta beste hizkuntzetan ere.

### 4. Kontuan hartzeko zenbait puntu

---

#### a) Hizkuntzalaritzaren eta beste diziplinen arteko harremanak

Xabier Kintanaren artikulu honek hizkuntzalaritzaren eta beste zientzien artean hizkuntz kontuetan dauden tirabirak ondo erakusten ditu. Adibide batzuk ematearren, aipatu daiteke nola historialari erromatarrek Euskal Herria deskribatzean aipatu zituzten tribuen banaketa ikusita, euskalkien sorrera Mitxelenak proposatutakoa baino askoz lehenagokoa izan daitekeela pentsatu ahal dugunean, hizkuntzalaritzak, oro har, ez duela aztertu ere egin aukera hau.

Edo Aquiles Luchaire historialariak Akitaniako harrietako testuak euskerazkoak zirela proposatu zuenean, edo Manuel Gomez-Moreno arkeologo-historialariak iberieraren grafia deszifratu zuenean, hasieran hizkuntzalari askok nola tratatu zuten ikustea.

Edo bizi izan dugun azken eskandalua: 3 hizkuntzalarien azterketa (Lakarra, “Gorrochategui” eta Velazquez) arkeologoen (Gil, Filloy...) egindako lanaren gainetik



geratu izana Arabako Iruñako ostraketan, guzti hori, arkeometriari ostrakak datatzeko aukerarik eman gabe. 2008ko azaroaren 19an Arabako Foru Aldundiak ostrakak faltsuak zirela ebatsi baino bi aste lehenago prentsan egon zen filtrazioa eskandalagarria izan zen, zioelako, hizkuntzalaritzaren bidez jakin ahal izan zela arkeologoek topatutako ostrakak faltsuak zirela.



Manuel Gomez-Moreno

*Bitxia da baina hizkuntzalaritzaren asmakizun garrantzitsuenetako batzuk "periferiatik" etorri dira. Adibidez, Manuel Gomez-Moreno arkeologoa izan zen grafia iberiarra irakurtzen deskubritu zuena. Hizkuntzalaritza beste diziplinetatik datozen ekarpenei irekiago egon beharko litzateke*

Zorionez, Arabako Iruñako gai korapilatsu honetan hizkuntzalaritza ez da isilik geratu eta inoiz baino maila altuagoa eman du, eztabaida zabala egoteko aukera eskainiz, Elexpuru, Iglesias, Orpustan eta Txillardegik egindako lanei esker, baita Mujikak emandako babesa ere. Hori guztia Henrike Knörrek erakutsitako arkeologiarekiko errespetuzko jarrera ahaztu gabe: "lehenengo arkeologiak esan beharko digu ostraka horiek noizkoak diren eta gero hitz egingo dugu besteok".

Barandiaranek "aitz" erroa zuten hitzak paleolitikotik etor zitezkeela esan zuzenean bazeukan arkeologiak ematen zion informazioa, hau da, euskaldunok hemen bizi izan garela modu jarraikor batez, 8.500 urte gutxienez. Bazekien gure arbasoen tresna nagusiak zeintzuk ziren: aizkorak, aiztoak, azpilak... Bazekien tresna horiek zerez egiten ziren. Bazekien tresna horiek nola izendatzen ditugun gaur egun.

## **b) Filologian aurrera egitea zailagoa da**

Zientzia zehatzetan, nahiz eta teoria bat mundu mailan onartuta egon, ikerle batek proba zientifiko baten bidez beste ondorio bat ateratzen badu, proba horretan oinarrituta aurreko teoria indargabetu dezake eta, bere lanpostua zalantzan jarri gabe, lasai asko probaren emaitzak argitaratu eta zabal ditzake, proba ondo eginda badago, ez delako zalantzan jartzen.

Baina letren diziplinetan, hizkuntzalaritzan esaterako, gauzak ez daude hain argi. Gauza bera modu askotatik begiratu daiteke eta, horregatik, askotan, nahiz eta teoria batzuk zalantzazkoak izan daitezkeen, inor gutxi ausartzen da horiek eztabaidan jartzen, azken finean proposamen horiek egiteko oinarri antzekoekin beste ondorio guztiz kontrajarriak atera daitezkeelako. Hizkuntzalaritzan gero eta lanpostu altuagoa izan, proposamen berriak egiteko gero eta beldur gehiago egoten da.

Agian arrazoi honengatik, lehen esan dugun bezala, hizkuntzalaritzako aurrerapen batzuk beste arloetako adituek egin dituzte, askatasun gehiago izan dutelako.

### c) Ideien absolutismoa noiz amaituko da?

Hizkera bat edo beste bat erabiltzea oso adierazgarria izaten da, diskurtso bakoitzaren atzean egon daitekeen mamia nolabait neurtzeko. Xabier Kintana eta Joseba Lakarrak Barandiaranek proposatutakoa errotik faltsua dela esaten dutenean, inolako zalantza adierazi gabe, egia absolutuaren jabe balira, pena besterik ez dugu sentitzen.

Gauzak ez dira zuri-beltzak izaten, are gutxiago hizkuntzalaritzan. Barandiaranek dioena ez dugu mundu osotik egia dela aldarrikatuko, ezin delako guztiz frogatu. Baina kontrakoa izan zela baieztatzeko, gure uste apalean, askoz argudio gutxiago dago oraindik. Beraz, zuhurtzia apur bat eskatzen diegu Kintana eta Lakarrari, Socrates ez dutela ezagutzen dirudi eta.

## 5. Barandiaranen “aitz” erroari buruzko proposamenaren baliagarritasuna

### 5.1. Antzekotasunaren printzipioa

Justizian lege berdinak modu desberdinez aplikatzen dira askotan, tartean erruduntzat hartutakoak euskal herritarrak badira. Hizkuntzalaritzan, zoritxarrez, justizian bezala, sarri askotan legeak ez dira berdin aplikatzen. Adibide nabarmenena latina dugu. Hizkuntza hau 400 urtez eremu zabal batean hizkuntza ofiziala izan zenez, berari onartzen zaizkion mila gauza ez zaizkio euskerari onartzen, nahiz eta gure hizkuntza, latina baino askoz lehenagotik eremu oso zabalean egon ei zen, oraingo genetika azterketek iradokitzen dutenaren arabera.

Euskerazko hitz batek latinaren antza osoa duenean, zalantzarik gabe, hitz hori latinetik datorrela esaten dute hizkuntzalariek. Antzekotasunaren printzipioa aplikatzen dute inolako zalantzarik gabe. Horren kontra, beste frogarik eduki gabe, ezin da ezer esan. Baina, hitz batek ez badu latinarekin inolako antzarik eta bai ordea euskerarekin, eta, gainera, euskaratik bertatik azaldu ahal baldin bada, nola demontre esan dezakete latinetik datorrela hitz hori?? Edo nola ukatu dakiok euskerari latinari ematen zaiona?



### 5.2. Aitz errodun hitzak ezin etorri latinetik

aitzurra: ligo, bidentis

aizkora: ax, securis, asciola

aiztoa: ferro, culter, novacula

azkona: auge

azpila: bin, fossa, lacus

zulakaitza: dola tibi

Hau da, nola onartu ahal zaio Euskaltzaindiko idazkari jaunari *aizto* hitza latinetik datorrela esatea? Edo *azpila*? Edo *azkona*? Edo *aitzurra*? Edo *zulakaitza*?

(Internet hiztegietan aurkitutako latinezko baliokideak)



### 5.3. Aitz errodun hitzen etimologiaren gardentasuna

Kintanari erantzun ziotenez “hemen kontu garrantzitsua ikusten da, latinez ez dago jarraikotasunik mozteko diren tresnen artean, hau da, ematen du hitz bakoitzak ez duela zerikusirik besteekin, bakoitzak jatorri desberdina duela. Euskeraz ordea, etimologiaren arabera, “aitzez” egindakoak direla eta, hitz guztiak, leku beretik sortutakoak direla dirudi.

Normalean maileguak hartzen direnean, askotan, aurreko hitzetako batzuk ere gelditzen dira hizkuntzan. Esaterako, bizkaieraz *bentanie* erabiltzen hasi zenean, *leihoak* ganbaretako zulotxoak izendatzeko gorde ziren. Edo *kazola* erabiltzen hasi zenean *lapiko* hitza ere beste zentzu batekin geratu zen. Edo aitzinean *maila (peldaño)* eta *mailadia* erabiltzen zirenean, *eskailera* hitzak *mailadi* ordezkatu bazuen ere, *maila* hitza geratu zitzaigun. Hau da, ez dira multzo osoak hartzen eta norberaren hizkuntzak denak desagertu. Gure kasuan, nahiz eta latinetik baten bat hartua izan (ax = hacha? = aizkora?) ez dirudi beste guztiek inolako loturarik dutenik”.

Beraz, *aitz* erroa duten hitz guztietatik *aizkora* eta *asciola* dira antza duten bakarrak. Horregatik, beste guztiak, argi eta garbi, latinetik ez datozela esan behar da eta euskeraren bidez haien etimologiak ezin argiagoak direla:

aiztoa: *aitz txikia* (*aitz burua* ere izan liteke, Naberan)

azkona: atx ona?

azpila: aitz biribila

aitzurra/atxurra: lurra (lantzeko) haitza/atxa; lurra urratzeko haitza/atxa (Naberan)

aizturra: aitz-tur (Naberan: dorredun aiztoa?)

zulakaitza: zulatzeko aitza



Beraz, Barandiaranen proposamen honek oinarri ona duela behintzat esan dezakegu.

### 5.4. Beste hizkuntzekiko antzekotasunak

Zalantzazko hitzak, esan bezala, *asciola* eta *aizkora bikotea* da eta biak hitz konposatuak direla dirudi, luzeragatik eta lehenengo osagaia beste hizkuntza askotan agertzen den ATX-AX delako:

#### a) Aizkora beste hizkuntzetan

- Portugesez: mACHado
- Gazteleraz: hACHa, mACHete
- Ingelesez: AX, AXe
- Italianoz: AScia
- Alemanez: AXt
- Sajoniera zaharra: ACHus eta AKus
- Frantsesera zaharra: AXa

## b) Opatxurra beste hizkuntzetan

- Ingelesez: ADZ, ADZe
- Gazteleraz: AZuela

## c) Aitzurra gazteleraz

- AZada

Hitz guzti hauek ikusita, jarraikortasun argi bat dagoela esan daiteke: ATX, ACH, AX, ADZ, AZ eta horiek diruditela *aizkora* / *asciola* hitzen lehenengo erroa.

## 5.5. Etimologia ezin argiagoak

Orain euskeraren eta gazteleraren balizko etimologiak azter ditzagun, ikusteko, ea beste hitzen antzera (*azkona*, *aitzurra*, *azpila*, *zulakaitza* eta *aizturra*), euskeratik bertatik ere azaldu daitezkeen.



**a) Atx (Ax, Axt, Axa, Hacha...):** euskaldunok, besterik gabe, argi ikusten dugu tresna hau *atx* (*aitz*) zati bat izan daitekeela, alegia, lehenengo aizkoren osagaia: *atx* zati bakar bat, hobeto moztu ahal izateko inguruetan zorrotuta zegoena.

Arkeologoek ondotxo frogatu duten moduan, aizkoraren garapenean bi tresna bereizten dira: lehenengoa “aitz” zati huts bat zen (orain 2.000.000 urte asmatu zela) eta askoaz geroago (azken 200.000 urte) “aitzari” lotura jarri zioten egur baten bidez.

Kasu honetan, hizkuntza guztietan agertzen den erroa, ATX, bere aldagai guztiekin (ach, ax, adz, az...), gizakiak sortutako lehenengo aizkora izango litzateke, etimologia ezin argiago batekin.




**b) Aizkora:** hemen etimologia ere nahiko argi dagoela dirudi:

- aitz-ora: oratzeko lekua duen aiztoa (Nabera)
- aitz-kora: lotutako aitza (korapilo: “kora” + “pilo” hitzean bezala)

Etimologia logikoa bezain sinplea dirudi. Hau da, etimologia sinpleenetakoa duen euskal hitz baten aurrean gauden esan genezake.

Bigarren fase honetan “atxa” lotu egin zuten tresna erabilgarriago bihurtuz. Beraz, “k-ora” guztiz logikoa da eta ondotxo erakusten du aldaketaren muina.

This map shows how the clan R1b-15c re-expanded from the Basque refuge soon after the Ice Age 15,000–13,000 years ago and still concentrates on the Atlantic side of Britain, featuring particularly in Cornwall.



## 5.6. Genetika

Artikulu hasieran aipatu ditugun genetisten lanek (Oppenheimer, Mtez. Pancorbo, Cardoso, Arnaiz...) teoria hau zuzena izateko behar zen osagai garrantzitsua ekarri dute: KEAL (Kantabria - Euskal Herria eta Akitania Lurraldeak) aterpetik mendebaldeko Europa osoa populatu zela, paleolito garaian, tresna garrantzitsu honen urrezko aroan.

Beraz, genetikak, nahi gabe, Barandiaranen euskal populuaren jarraikortasunari buruzko teoria baieztatzeaz gain, Joxemielen bigarren proposamen garrantzitsu hau ere egiazkoa izan dadin aukera guztiak zabaldu dizkigu eta aurreko puntuetan esandakoa egia izan dadin beste elementu bat da.

## 5.7. Euskeraren egonkortasuna

Euskal Filologiako zein beste filologietako irakasle askok hizkuntzak etengabe eta erritmo berean aldatzen ari direla ziurtasun osoz esaten dute, zalantzetarako inolako aukerarik eman gabe.

Baina Donemiliagako Rejan dauden orain 1.000 urteko Arabako herrien izenak ikusi eta oraingoak ikusi eta aldaketak egon direla esan behar bada ere, asko ez dira izan, izen ia guztiak ezagutzen direlako:

Hazpurua, Haztegieta, Haizcoeta, Haizpilleta, Harrieta, Harriolha, Harrizavallaga, Carrelucea (oraingo Arluzea), Hurizahar, Sarricohuri, Huribarri, Haberasturi, Huriarte, Horivarri, Hurigurenna, Bardahuri, Bassahuri, Hobecori, Atahuri, Okerhuri, Hurivari, Zuhazu, Hegiraz, Hegilior, Heguiraz (oraingo Egilaz), Arzanhegi, Gardellihi (oraingo Gardelegi), Igahigi (oraingo Igai), Mendiolha, Harriolha, Zuhazulha, Olhavarri, Olhaerrea, Barolha (oraingo Baroja), Hurrivari.

Kontrara, antzeko epe batean, 1.200 urteko epean, hau da, 400. urtean hitz egingo zen latinaren eta 1.200 urte geroago gazteleraizko liburuan dagoen hizkuntzaren artean antzeko aldea ote dago?

400. urtea, latina hizkuntza nagusia zenean: "In uno lugare manchego, pro cuius nómine non volo calentare cascos, vivebat facit paucum tempus, quidam fidalgus de his qui habent lanzam in astillerum, adargam antiquam, rocinum flacum et perrum galgum, qui currebat sicut ánima quae llevatur a diábolo"

1605. urtea, gaztelerazko On Kixote: "En un lugar de la Mancha, de cuyo nombre no quiero acordarme, no ha mucho tiempo que vivía vn hidalgo de los de lança en astillero, adarga antigua, rozin flaco y galgo corredor..."



Biltzar honetan geroago hitz egingo duen Luis Silgok adierazi duenez, Arabako Iruñako ostrakak egiazkoak direla frogatuko denean, euskeraren egonkortasuna frogatzeko aukera paregabea izango dugu, bi mila urteko epean hitzen bi herenetan jarraikortasun handia ikusten delako, beste hizkuntzetan egon ez den adinakoa.

Euskeraren egonkortasuna, beraz, beste argudio bat izan daiteke Barandiaranen teoriaren alde.

## 5.8. Toponimia

Baina argudio gehiago dago oraindik Barandiaranen teoria zuzen doala pentsatzeko: toponimia. Izan ere, ekialdeko "aitz" eta mendebaldeko "atx" erroez osatutako ehunka toponimo dugu Euskal Herrian, horietako asko mendi izenak: Atxarte, Aizkorri, Lemoatx, Udalatx/Udalaitz, Untzillatx, Akaitz, Allaitz... Baita leku zehatzagoak ere: Atxuri...

Toponimia zaharretan zaharrena dugu hizkuntzan eta izen horiek erromatarrek jarritakoak izatea zaila egiten zaigu, haiek gutxi zapal dutako eremuetan daudelako gainera.

## 5.9. Aizkorak, aiztoak... "aitzez" egiten dira

Lakarrak hizkuntzalaritzaz asko omen daki baina, ikus dezagun arkeologiaz dituen ezagutzak. Bere ustean "aitz" erroa duten tresna horiek ezin dira paleolito garaikoak izan harriz egiten zirelako eta ez "aitzez". Guk, Lakarraren antzera, arkeologiaz oso gutxi dakigunez, Wikipedian aritu gara irakurtzen, ea hori egia den ala ez ikusteko.

Lehenengo bilaketan gauzak argitu zaizkigu. **Aiztoa** bilatuta hauxe topatu dugu:

**Aiztoa edo ganibeta** mozteko erabiltzen den ertz edo xafla da, eskuz edo beste modu batez eusten dena eta heldulekua duena edo ez. Aiztoak gutxienez Harri Arotik (duela bi milioi eta erdi urtetik gutxi gora-behera) erabiltzen dira. Hasieran harriz, silexez (*kriptokristalinoa den kuartzoak (SiO<sub>4</sub>) osatutako arroka sedimentarioa*) edo obsidianaz egiten ziren; ondoren, teknologiak aurrera egin

ahala, beste material batzuk erabili izan dira, hala nola brontzea, kobrea, burdina, altzairua, zeramika edo titanioa.

Beraz, aiztoak **arroka** mota bat den sukarriz egiten ziren. Ikus dezagun orain **aizkora** mota bati buruz (bifaz), gaztelerazko Wikipedian zer dagoen:



Wikipedia: "aitzez" egindako bi aurpegietako aizkoren irudiak

“Los bifaces (bi aldeko aizkorak), los cantos tallados y los picos triédricos serían utensilios nucleares, pues es común fabricarlos sobre guijarros, bloques o **nódulos de roca**.

**Las rocas de grano fino** como el pedernal, la cuarcita y la obsidiana son óptimas para fabricar herramientas, pues se quiebran en lajas sin mucha dificultad.

Por otra parte, no es un instrumento muy exigente respecto al tipo de soporte, **ni de roca**, siempre que la fractura sea concoidea.

Es muy exigente con la materia prima, **requiriendo rocas** de mejor calidad.

Por último, el bifaz constituye una forma prototípica que, refinándose, da lugar a tipos más evolucionados, especializados y sofisticados, como puntas de proyectil cuchillos, azadas, hachas etc.”

Beraz, arkeologiari buruz tutik jakin gabe, ikus dezakegunez, aitz mota batzuk erabili izan ziren aitz erroa duten hitzak egiteko (azkona, aiztoak, aitzurrak, aizkorak edo hachas...)

Zoritxarrez, Wikipedian haxe irakurtzen dugu “Aizkoraren” fitxan:

Duela gutxi arte, aizkora hitza haitz errotik zetorrela uste izan da. Horrek antzina harriarekin egiten zela erakutsiko liguke, gerora, Brontze Aroan, metalezko edota kobrezko ez ordezkatuak izan ziren arren. Erroa ustez beste zenbait tresna batzuetan bezalakoa izango zen: aiztoa , aitzurra...



Egun beste teoria batek hartu du indar gehiago. Hain zuzen, latineko *ascioli* hitzetik eratorria litzateke "aizkora" hitza.

### 5.10. "Harri" eta "atx/aitz" hitzen arteko lotura semantikoa

Aurreko puntuan esandakoa gutxi balitz, Lakarrari aipatu behar zaio "atx/aitz" eta "harriaren" arteko nahasketa semantikoa leku batean baino gehiagotan dagoela eta, horrek zer pentsatu eman beharko ligukeela. Ikusi ditzagun:

- **Arkaitza:** hitz honen osagaiak harri eta aitzia izan litezke
- **Aiako Harriak:** mendi bat da eta "aitza" erroaren ordez "harriak" du osagai gisa, eta, denok dakigunez, aitzak ditu eta ez harriak. Mendi hau garrantzitsua da Gipuzkoan eta *harri* hitza *aitza* izendatzeko erabili izana, antzina bi hitz hauen arteko harreman semantiko estua zela edo bien arteko nahasketa egon izan dela adierazi lezake.
- **"Harri" osagaia duten mendi izenak:** *Aiako Harriak* izenean bezala, hitz hau eduki dezaketen mendi izen gehiago ere badago: **Arriolatx**, **Pardarri**, **Arraitz**... Beraz, mendi izen batzutan "harri" izena gaur egungo "aitza" izendatzeko dagoela esan genezake.
- **Sukarria:** "harri" osagaia badu ere, izatez, "aitza" da (silex). Gainera, euskerak paleolito garaia eramaten gaituen beste hitz bat gehiago dugu hau, izan ere, sukarri edo silexa sua egiteko erabiltzen zuten gure arbasoek, pospoloak asmatu gabe zeuden garaian noski.



*Aiako Harriak*

**Ondorioak:** Orain arte aipatutako 10 arrazoi hauek kontuan hartuz, logikoa da pentsatzea "aitz" erroa duten hitz horiek paleolito garaikoak direla eta euskerak bere horretan eutsi diela. Eta Barandiaranek seguruenik asmatu zuela. Beraz gaur egun dagoen hipotesi sendoena dirudiela. Bestetik latinezko "asciola" hitz konposatua dela dirudi, lehengo osagaia beste hizkuntzetan agertutako "ax" izan daitekeelarik.

Eta hori horrela balitz, ondo legoke euskera batuan familia bereko hitz guztiak berdindaztea. Izan ere gehienak "h" gabe idaztea (toponimo gehienak –Aizkorri, Atxarte...- edo aizkora, aiztoa, azkona, aizturra) eta "haitza", ordea, "h"-rekin idazteak ez du zentzu handirik.